

ZAM

ZORROTZ MORROTZ • Zorrotzako herri aldizkaria • 88. alea. 2024ko uztailea



LIHER URKIZA eta JULEN AGUADO

Bizkaiko Trail Ligako txapeldunak



Imajinatzen
duzu Zorrotza
merkataritzarik
gabe?

Baduzu eskaintzarik
onena Zorrotzatik
irten barik

ZAINDU TOKIKO MERKATARITZA

EROSI AUZOAN!

www.comerciantes-zorrotza.com

VIVE EL EUSKERA DE CERCA

BIZI EUSKARA HURBILETIK



2024

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK
CURSOS DE EUSKERA EN VERANO

Informazio gehiago



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak
Cursos intensivos
Etxe ondoan
Cerca de casa
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko
Udako ibiltaria



ONLINE IKASTAROAK

A1, A2, B1, B2, C1, C2



PRAKTIKATU

Udan ere,
mintzalagunak
martxan; hurbildu
zure euskaltegira



673 200 100 / 946 464 000

www.aek.eus

LIZARDI AEK EUSKALTEGIA

UZTAILA / ABUZTUA / IRAILA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

Hizkuntza eskakizunak prestatzeko ikastaroak
Goizez eta arratsaldez

Matrikula zabalik

Perro 1, 1 · 94 416 82 00 · 48005 BILBO · lizardi@aec.eus



ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria

88. alea. 2024ko uztaila

www.zorrotzmorrotz.eus

zm@zorrotzmorrotz.eus

@ZorrotzMorrotz

@zorrotzmorrotz

@zorrotzmorrotz

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratxe Pérez

Laguntzaileak:

Manu Cobo
Asier Urkiza

Koordinazioa:

Naroa Peña

Diseinua eta maketazioa:

Aitor Marín. (amc diseinua)

Zuzenketak:

Iñigo Ramírez de la Piscina

Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du.
Edukia erantzule bakarrak ZM bera eta kasuan kasu, testuaren sinatzaileak dira

sarrera

Moises Arce gogoan

Joan den maiatzaren 28an hil zen Moises Arce Espiña, urteetan Auzo Elkarteko presidentea izan zena. Borrokalari nekazina izan zen auzo hobia lortzeko asmoz.

Berak egindako lan handia aitortu nahi dugu eta bere ibilbideari gure omenaldirik zintzoena adierazi nahi diogu hemendik ere. Moi, faltan izango zaitugu!!

Bestalde, gaur egun hogeit bat herritar elkarte biltzen *Sader-Profersa kanpora* plataformak aurrera jarraitzen du. Auzoan lehen batzar informatiboa egin eta Zorrotzan maiatzaren 2ko manifestazioa egin ondoren, beste batzar bat antolatu zen Basurtun. Ondoren, hainbat eragilerekin bilerak egin ditu plataformak eta beste manifestazio bat antolatu zen San Inazio ekainaren 6an. Horrek guztiak oihartzun mediatiko handia izan du, batez ere hamabost egun eskasean fabrika izandako bi gertakarien eta horrek sortu zuen alarmaren ondorioz.

Gertaera horien ondoren, Eusko Jaurlaritzak Profer-sa kautelaz ixteko agindu zuen, bi istripu horiek eragin zituzten gabeziak konpondu arte.

Gure jarrera argia da: enpresa horien jarduerarako kokapen egoki batera lekualdatzea, lanpostuak mantenduta. Era berean, auzoan jarraitzen duten bitartean arnasten dugun airearen kalitatearen neur-gailuak jartzea eskatzen dugu. Sinadura bilketa eta banderola salmenta ere martxan daude. Adi egon deialdiei, borrokak aurrera jarraitzen du eta.

Amaitzeko, duela urte asko bezala, ekainean Zorrotza Gozatu eta Bizi programa ospatu dela nabarmendu nahi dugu. Jarduera ugari guztion gozamenerako eta goraiatu nahi dugun ekimena.

Besterik gabe, animo eta aurrera!
Ondo pasa udan!



VÍA gráfica

viagrficazorrotza@gmail.com

Diseñua

MESÓN LUNA

*Etxeko berezitasuna; haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

Bigarren manifestazioa egin du Sader-Profersa plataformak



IGOR GUTIÉRREZ

Ekainaren 6an manifestazio berria egin zuen Sader-Profersa plataformak. Oraingoan, itsasadarraz bestalde. Protesta Sarrikoko metro geltokitik abiatu eta Zorrotzaurreko irlan bukatu zen, Sader eta Profersa aurrez aurre dituzten etxebizitza berriak eraikitzen ari diren orubean.

Antolatzaileek salatu zutenez, “gaur-gaurkoz, ez ditugu bi istripuen ondorioz Profersari zabaldutako espedientearen xehetasunak ezagutzen”. Era berean, bi enpresen jardura lekualdatzeko data zehatz baten beharra aldarrikatu zuten. Bien bitartean, kontrolak areagotzea eskatu zuten, bai airearen kalitateari dagokionez, bai kamioi astunen joan-etorriari dagokionez, daramatzaten gaien arrisku mota identifikatuz. Gainera, plataformak ohartarazi zuen Saderrek bere jarduerarekin jarraitzen duela airera kutsadura igortzen, oso zaharkituta dagoen fabrikako teilatutik, pitzaduretatik eta zuloetatik hautsak ateratzen direlako.

Hedabideetako azken berriak

Bigarren manifestazioaren ondoren zenbait berri agertu dira hedabideetan. Hain zuzen, biharamunean, Profersak Eusko Jaurlaritzari eskatutako dokumentazioa aurkeztu ziola jaso zuten zenbait komunikabidek. Jaurlaritzak hura aztertu eta enpresari bisita egingo omen dio, berriz irekitzeko baldintzak betetzen dituela ziurtatzeko. Bestetik, ekainaren 13an El Correo egunkariak Agaleus taldeak Bilboko portuan 17.500 metro koadroko lursaila eskatu duela jakinarazi zuen, Saderrentzat. Lekualdatzeak 15 milioi euroko kostua izango duela aipatzen da. Obrak bi urtez luzatuko lirake eta fabrika berriaren ekoizpena %20 handiagoa izango litzateke. Erreportajeak, ordea, ez du inolako aipurik egiten Profersari buruz.

Berriak berri, plataformak mobilizazioaren bidea urratzen jarraitzen du. Azken asteotan, sinadurak biltzen ari dira kalean jarritako mahaietan. Udaren ostean, bildutako sinadurak aurkeztea dute helburu.



Udalak Zirgarien parke berriaren lizitazioa onartu du Chimbo lantegi zaharra zegoen orubeko egungo aparkalekuan

Proiektuak auzokideen kritikak eragin ditu, ekarpenik jasotzeko aukerarik ez delako egon, egungo aparkalekuko leku guztiak kenduko direlako eta Saderrentzat eremu publikoa uzten delako

AITOR MARÍN

Bilboko Udalak Renferen trenbidearen eta itsasadarraren artean 11 mila m²-ko parke bat eraikitzeko lizitazioa onartu du, duela urte batzuk Chimbo xaboi fabrika zegoen orubeko egungo aparkalekuan. Proiektu berri honek berdeguneak, haurrentzako jolasak, ariketa fisikoa egiteko guneak, bidegorria eta kalistenia eta parkour guneak aurreikusten ditu, besteak beste. Udalak 2,65 milioi euro gorde ditu Zirgarien parkea izena izango duen gune berri hori eraikitzeko.

Auzokideen kritikak

Udalak argitaratutako infografietan, Sader eta Profersaren kokapena izkututzen da. Zentzu honetan, Zorrotzako herri-mugimenduak "oso susmagarria" deritza proiektua egunkarietan agertzeari usain txarrak sortzen dituzten enpresa horien

lekualdatzea eskatzen zuen maiatzaren 2ko manifestazioa izan eta egun gutxira. Halaber, Auzo Elkartea kexu da proiektuaren planoetan aparkaleku bat gorde delako Saderrena doazen kamioientzat. "Onartezina da espazio publikoa enpresa pribatu bati oparitzea, are gehiago horrelako enpresa bati" salatu du elkarteak. Gainera, ohartarazi dutenez, "aparkalekua ezkutatzeko, lau metroko altuera duen horma bat eraikiko da, segurtasunik gabeko gune bat sortuz".

Kritika ugari eragiten dituen beste alderdi bat egungo aparkalekutik aparkaleku guztiak kentzea da. Izan ere, aparkaleku falta da Zorrotzako bizilagunen kexa nagusienetako bat.

Parte-hartzerik eza

Parte hartze falta ere gogor salatu du Auzo Elkartek, proiektua ez baita eraman Barruti Kontseilura "proposamenak eta hobekuntzak egin ahal izateko". Elkarteko kideek argi utzi nahi dute "ez duela parkea baztertzeko, Zorrotzako beharretara egokitu baizik". Gainera, kexu dira lau urte daramatzatelako Zorrotzako Kaia irekitzeko eskatzen, eta berroneratze horri buruz ez da ezer aipatu, "2022ko Udal Aurrekontuetan partida ekonomiko bat onartuta egon arren".



XXVII. Ipuin Lehiaketaren sariak banatu dira

ZORROTZ MORROTZ

Euskal Txokoak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketaren sariak banatu berri dira. Epai-mahaiak lan handia izan du berriro, guztira 125 ipuin jaso baitira. Gainera, aipagarria da lanen maila: aurreikusita zeuden maila bakoitzeko lehenengo eta bigarrenariei, aipamen bana gehitu behar izan die epai-mahaiak.

Mila esker aurten parte hartutako idazle guztiei eta zorionak sarituei. Hona hemen haien izenak:

12 urtetik behera:

- **1. saria:** Edahi Ruiz.
- **2. saria:** Iker Verenzuela Giovanny.
- **Aipamena:** Beatrice Ahgayedo.

DBH eta batxillergoko ikasleak:

- **1. saria:** Naia De La Fuente Llantada.
- **2. saria:** Ugaitz Martín Ortega.
- **Aipamena:** Begoñe Xinting Tolosa Moya.

Montebideo etorbideko jubilatuen klubean igogailua jartzeko lanak hasi dira

ZORROTZ MORROTZ

10 urteko aldarrikapenen ondoren, Auzo Elkartearen eta Erretiratuen Klubaren borroak fruituak eman ditu, eta Montebideo etorbideko Erretiratuen Klubaren instalazioetarako irisgarritasuna hobetuko duen igogailua jartzeko lanak hasi dira.

Jubilatuen Elkartek 3.500 sinadura inguru aurkeztu zituen 2022an Barrutiko Kontseiluaren Osoko Bilkuran, igogailu hori jartzeko eskatzeko. Azkenik, nagusiek laster erabili ahal izango dute igogailu hau.


Zorrotzako Kiroldegia "Bilbo Hiria" nazioarteko atletismoko batzarra hartu du berriro

ZORROTZ MORROTZ

Mundu osoko 400 kirolarik hartu zuten parte ekainaren 18an Bilbo Hiria Nazioarteko XIX. Atletismoko Batzarrean. Proba hau World Athletics Global Calendar egutegian sartuta dago, eta hainbat proba egin ziren, eliteko atletei zuzendutako batzuk barne, hala nola lasterketak, oztopo-lasterketak, luzera-jauziak, jauzi hirukoitza edo xabalina-jaurtiketa. Haurrentzakoak eta proba paralinpikoak ere egon ziren. Sarre-ra doakoa izan zen, eta ikusle ugari bildu zituen ekimenak.

EUROPAR PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK ZORROTZAN

PSOE garaile argia. EAJ izugarri behera, EH Bildu bigarren postutik oso gertu izanda



AITOR MARIN

Alderdi Sozialista izan zen garaile argia ekainaren 9ko Europako Parlamenturako hauteskundeetan Zorrotzan. Sozialisten hautagaitzak ia bikoiztu egin zituen EAJ eta EH Bildu, bigarren eta hirugarren aukerak, hurrenez hurren.

PSOEk duela 5 urte baino 80 boto gehiago lortu zituen, parte-hartze baxuak markatutako hauteskundeetan (2019an Europako hauteskundeak udal eta foru hauteskundeekin bat etorri ziren). Hori dela eta, grafikoan boto-ehunekoa sartu dira; izan ere, duela bost urteko datuekin alderatuta, parte-hartze aldearekin oso baldintzatuta dago boto-kopurua. Gauzak honela, oso aipagarria da alderdi sozialistaren ehunekoaren igoera (ia 11 puntu).

Ostera, EAJren gainbehera izugarria da. Mila boto baino gehiago galdu ditu eta % 35etik % 19ra jaitsi da. Duela bost urte garaile argia izan bazen ere, oraingoan bigarren postuari oso gutxigatik eutsi dio. Izan ere, EH Bilduk baino 16 boto gehiago ez ditu lortu. Alderdi subiranistak bere goranzko joera berretsi du, lau puntu baino gehiago igota.

PPk ere bere emaitzak hobetu ditu botoetan eta nabarmen portzentuak. Espainiako ezker konfederalen, hondamendi berria % 12tik % 3,6an eta % 3,4an geratu baitira Podemos eta Sumar, hurrenez hurren.

Espainiako eskuin muturra ere gora. Voxek nabarmen egin du gora eta "Se Acabó la Fiesta" esperimendu berriak 76 boto lortu zituen.

B
BiziFitness

Zure zain gaituzu
Zalbidea estratako 13an.

CROSS TRAINING
ENTRENAMENDU FUNTZIONALA
TXIKICROSS

Deitu 623 106 531 telefonora

13 urte

ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

Jai-Alai
kafetegia

Aparo estrata 12
94 490 12 59

RISKO
Burdindegia

Zorrotza Kastrexana, 7
Telefona: 94 441 64 86



// Zorrotzan bizi nintzenean oso ondo pasatu nuen //

JOSU CANTERO GARCÍA

Bizitokia: Valencia (Espainia)

Noiztik: 2022.etik. (lehen Madrilén eta Ginebran egon da)

Adina: 41 urte

Lanbidea: Ikertzailea eta unibertsitateko irakaslea.

Orain dela 20 urte joan zen Josu Zorrotzatik kanpo bizitzera. Gaur egun Valentzian bizi da ikertzaile eta unibertsitateko irakasle lanetan. Nahiz eta hango eguraldia ez duela oso gustuko, pixkanaka-pixkanaka ohitzen hasi da, osatu duen familiari esker

TESTUA: NAROJA PEÑA

Nolatan heldu zinen Valentziara bizitzera?

Zientzia Fisikoetako ikasketak egin nituen, eta amaitu ondoren funtsean ikerketari ekin nion. Doktorego bat eta hainbat doktoretza ondokoak egin ostean (gehien bat Geneva hirian), talentua erakartzeko Estatuko kontratu bat lortu nuen IFIC CSICen zentro misto batean eta Valentziako Unibertsitatean. Genevan bizi nintzenean, Valentzian bizi zen gaur nire bikotekidea dena ezagutu nuen, eta horregatik Valentziara itzuli nahi nuen bereziki.

Nolakoa da zure lana?

Fisikaria naiz eta nire espezialitatea partikulen fisika da. ATLAS lankidetzan ere kidea naiz. ATLAS partikula-detektagailu bat da, eta Hadron Collider langan dago (LHC izenez ezagutzen da). LHC partikula zirkularreko azeleragailu erraldoi bat da (27 km inguruko zirkunferentziarekin) Geneva

hirian kokatua. LHCk protoiak azeleratu eta talka egiten dute interakzio-puntua ATLAS detektagailuaren barruan dela. Nire lana, talka bakoitzaren ondoren sortzen diren datuak aztertzea da. Talkak 0.000000025 segundo bakoitzeko gertatzen dira; beraz, kantitate datu-kopuru handia daukagu. Analisi hauetan, Unibertsioa osatzen duten partikulen arteko elkarrekintzak deskribatzen dituen gaur egungo teoria egiaztatzen saiatzen gara. (Eredu estandarra edo SM, ingelesezko sigletan) Unibertsoaren jatorriaren eta gaur egungo egoeraren deskribapena argiagotzeko. Gainera, SMA proban ere jartzen saiatzen gara, teoria horren bidez ezin diren fenomeno berriak bilatuz eta "Fisika Berria" erabiliz. Badakigu SM zabaldu egin behar dela, adibidez, materia iluna barne hartzeko. Funtsean, nola egin jakin behar dugu. Talka azterketa horrek zer norabide hartu behar dugun jakiten lagun diezaguke.

Bizimodu berrira moldatzea kostatu zitzaizun?

Ez asko. Oro har, hemengo beroa izaten da okerren daramadana. Euskal Herrian baino tenperatura altuagoa egiten du Valencian. Udak jasanezinak egiten zaizkit. Ez nuen uste hau inoiz esango nuenik, baina euria faltan dut!

Oso ezberdina da hango bizimodua Zorrotzan zeneukanarekin alderatuta?

Orain dela bi urte aita izan nintzen, eta horrek asko aldatu dit bizitza Zorrotzan nuenarekin alderatuta. Badira ia 20 urte ez naizela Zorrotzan bizi. Oro har, esango nuke errutinak desberdinak bihurtzen direla helduaroan, nire kasuan hala izan da behintzat... Hori bai, Zorrotzan bizi nintze-nean oso ondo pasatu nuela esan behar dut, beraz langa altu dago.

Zer da han gehien eta gutxien gustatzen zaizuna?

Hondartzak gustatzen zaizkit eta mendiko leku bitxiak ere badaude Valentziatik gertu. Hemen antolatzen diren hainbat arduerak ere gustatzen zaizkit: kontzertuak, erakusketak, urtean zehar antolatzen diren azokak... Gastronomía ere oso ondo dago. Eguraldia da gutxien gustatzen zaidana, beroegia nire gusturako, eta "berdez inguraturik" ez sentitzea, Zorrotzara joaten naizenean gertatzen zaidan bezala.

Auzora askotan bueltatzen zara?

Hilabeteen behin edo bitan joaten saiatzen naiz; hegazkineko txartela eta lanerako prestasunaren arabera.

Zeren falta sumatzen duzu gehien?

Gauza asko: familia, lagunak, eguraldia, mendi berdeak ikustea, tabernak, haurrentzako parkeak (Valentziakoak ez dira hain atseginak umeentzat)... Zerrenda oso luzea da!

Bukatzeko, Zorrotzara berriro bizitzera bueltatzeko asmoa duzu? Pentsatu al duzu horretan noizbait?

Ez dut uste, lana dela eta... Baina, agian erretiroa hartzen dudanean pentsa dezaket... Ez dakit, ezin dut erantzunik eman... Ez dut horretan pentsatu oraindik.



“ Ez nuen uste hau inoiz esango nuenik, baina euria faltan dut! Hemengo beroa da okerren daramadana



Peñista Egunak giro zurigorritz bete zuen auzoa

Gizonezkoen taldeak egindako denboraldi bikainaren ostean, eta gabarra itsadarretik nabigatu eta hilabete eta erdi eskasera, Peñen Elkartek azken hamarkadetako Peñista Egunarik goxoena ospatu zuen Zorrotzan

TESTUA: AINARA GARCÍA. ARGAZKIAK: ZURIGORRI ZORROTZA

Urtero bezala, Athleticeko zaletuen elkar-
teak biltzen dituen Athletic Cluben Peñen
Elkartek *Peñista eguna* antolatu zuen ligako
txapelketa bukatu eta hurrengo asteburuan.
Aurten, ekimen hau antolatzearen ardura
Zurigorri Zorrotza, *All Iron Emakumezkoen Ath-*
letic eta *Harrapari Taldearen* zaletu taldeen
esku egon zen, eta ekainaren 1ean, Zorro-
rtzan ekimen ugari izan zituen jardunaldi zu-
rigorri sutsua bizi ahal izan genuen zaletuek
eta zaletuak ez direnek ere.

Aurtengo gizonezkoen lehenengo taldearen
denboraldi izugarriaren ondoren, (koparen
titulua eta gabarraren itsadarretik eginda-
ko ibilbidearen oroitzapena oso gertu ditugu
guztiok oraindik), urteroko ohiko jai giroa
biderkatu zen. Lurralde ugari eta ezberdi-
netatik etorritako Athleticzale eta elkarte
ugari batu ziren ospakizun honetaz gozatze-
ko. Guztira, egun hartan 500 bazkide inguru
batu zirela adierazi zuten antolatzaileek.

Goizeko lehen ordutik, Zurigorri taldearen
egoitza den Venecia tabernan akreditazioak
jasotzen hasi ziren bertaratutakoak. Bitar-
tean, Azoka parkean txikientzako festa hasi
zen Txikigunearekin, nahiz eta eguraldi kax-
karra zela kausa, gutxi iraun zuten monta-
tutako ekintza batzuek. Ibai Artek euskal
dantzen ikuskizun ederra ere eskaini zuen,
eta aldi berean, *Kolpeka Trikitixa* eta *Guretzat*
Fanfarrea taldeek musikaz alaitu zuten auzoa
kalerik kale.

Eguerdian, Kiroldegiko Hockey pistan, baz-
kari herrikoian mahaia partekatu zuten
zaletu guztiek. Postrekin batera, mus eta

Kiroldegiko hockey pistan egindako bazkariak 500 zale inguru bildu zituen

tute txapelketetako finaletan kartetan aritu ziren elkarren kontra Lepeko Peña Gabarra eta Peña Bosko eta Peña Valverde eta Peña Casco Viejo hurrenez hurren.

Ondoren, Peñen Elkartek urtero ematen dituen sariak banatzeari ekin zion. Peña-kideek denboraldiko proiektzio handiena duen Bilbao Athleticetako eta emakumezkoen jokalaririk onenak jotzen dituzten jokalariei eman zizkien 'Bihar lehoia izango da' eta 'Urteko lehoia' sariak hurrenez hurren. Sari-tuak Aingeru Olabarrieta eta Adriana Nanc-lares izan ziren.

Gainera, ostean, Azoka plazan jardunaldiko unerik hunkigarriena bizi izan zen iaz zen-dutako Sendoa Blasco, Iparraldeko Taldeen Elkartearen bazkideari egindako omenal-diarekin. Hau guztia, Lowe Band taldearen kontzertuarekin familia zurigorriak ospatze-ko eta gozatzeko antolatutako egunari itxiera bikaina eman aurretik.



MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalbidea estrada, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNESS

Tel. 94 441 62 75

Ford

Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefona: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefona: 94 442 17 12

SAZ
OKINDEGIAK

**Zorrotzako
labea**

Zugandik gertu

Zorrotza Kastrexana errepidea, 34
Tfno. 94 441 09 71
Zorrotza - 48013 BILBO

LIHER URKIZA eta JULEN AGUADO

Bizkaiko Trail Ligako txapeldunak

**“Euskadiko Kopa irabaztea
da nire hurrengo helburua”**

**“36 urterekin hasi nintzen
trailean, asfaltoan korrika
egiteaz aspertuta”**

Liher Urkiza eta Julen Aguado 2023ko Bizkaiko Trail (mendi-lasterketak) Ligako txapeldunak dira. Liherrek aitarengandik jaso du zaletasuna, eta 16 urterekin Bizkaiko junior kategoriako (16-18 urte) txapela lortu du. Julen, (43) asfaltoz korrika egiteaz aspertuta mendian korrika hasi zen, eta urte gutxitan Bizkaiko Trail txapela irabazi du, bere benetako pasioa eta lehenesten duen kirola euli-arrantza izan arren; izan ere kirol honetako munduko txapelketan lehiatzeaz zen elkarrizketa hau egin zenean.

“Aitarekin hasi nintzen, berak urte asko eman baititu trail entrenatzen. Gustatu zitzaidan eta futbola utzi nuen

“Munduko Euli arrantza Txapelketan parte hartuko dut gutxi barru. Nahiz eta Trail txapeladuna izan, arrantzak lehentasun osoa du



Bizkaiko Trail txapeladunak zarete. Zertan datza Bizkaiko Trail txapelketa?

Julen: Lasterketen egutegi bat aurkezten du Bizkaiko Mendi Federazioak urte hasieran, eta lasterketa horietatik guztietatik, gutxienez hamarretan parte hartu behar da sailkapen nagusian lehiatu ahal izateko. Lasterketa bakoitzean, puntuak eskuratzen dira sailkapenaren arabera. Parte hartutako lasterketa guztietatik, hamar puntuazio onenak hartzen dira sailkapen nagusiaren marka osatzeko. Denboraldi amaieran puntu gehien eskuratu dituen kirolaria da txapeladuna.

Nola hasi zineten kirol honetan? Nondik datorkizue trailekiko zaletasuna?

Liher: Aitarekin hasi nintzen, berak urte asko eman baititu kirol honetan. Lehenengo aldiz, Agate Deunan hasi nintzen, Sasiburu menditik gora. Gustatu zitzaidan eta futbolari utzi nion, eta trail entrenatzen hasi nintzen.

Julen: Taekwondo egiten nuen. Kirol hori utzi nuenean, gimnasioan mantentze-ariaketak egiten hasi nintzen. Korrika egiten hasi nintzen geroago, edozein tokitan eta edozein momentutan egin daitekeelako korrika. Korrika egiten nuen errepidetik, eta antza, nahiko azkar, baina ez nuen gustuko. Lagun baten gomendioari kasu egin nion,

eta mendian hasi nintzen. Probatu egin nuen eta askoz gustukoago daukat. Azken finean, kirola oso gustukoa dut eta naturan egiten diren ekintzak ere bai. Trailak bi gauza horiek uztartzen ditu.

Zenbat km dira lasterketa bakoitza? Antze-koak dira?

Julen: Ez, mota askotakoak izan daitezke. Kilometro bertikalak, edo 10 edota 30, 35 kilometroko lasterketak.

Zer lasterketa mota dituzue gustukoen?

Liher: Nik kilometro bertikalak ditut gustukoenak, azkar igotzen naizelako.

Julen: Nik aldiz nahiago ditut 30 - 40 kilometro bitarteko lasterketak. Trebetasun handiagoa daukat jaisteko igotzeko baino, eta beraz, tarte horretako lasterketak dira nire ezaugarrietarako hobeto datozkidanak.

Zenbat denbora ematen duzue astean entrenatzen?

Liher: Astean sei egunetan ateratzen naiz. Gehienetan asfaltotik, eta igandero mendira noa trail luze bat egitera.

Julen: Astean bost egunetan, eta guztira astean 70-100 km. eginda. Asfaltoan behin edo. Berdin da gaua edo negua izan.



Argazkia: Dan Sol Mar



Zein izan da zuen momenturik onena lasterketa batean?

Liher: Aurtengo txapelketako lehenengo lasterketan, Artxandako funikularreko igoeran. Nire anaia zegoen goian animatzen, eta uste dut bere animoei esker irabazi nuela lasterketa. Oso lehia estua izan zen eta 9 segundo ko aldea izan nuen bigarren sailkatuarekiko.

Julen: Nahiz eta ez irabazi, lasterketa gogorrrak ondo bukatzea. Adibidez, gogoratzen dut orain dela bi urte 42 kmko lasterketa bat Pirinioetan. Oso teknikoa zen, zazpi ordu eta erdi lehiatzen... Eta tripako arazoak ere izan nituen. Kirol honetan, hainbeste ordu direnez, lasterketan jan behar da... Eta lasterketa hartan janariarekin pasatu nintzela uste dut. Ordubeteko arazoak izan nituen, baina hala ere, bukatzea lortu nuen.

Forma fisiko ona duen edonork mendiko botak jantzi eta trailean lehiatu dezake, ala prestakuntza espezifiko behar du?

Julen: Edonork egin dezake, baina pixkanaka-pixkanaka... 42 urte ditut eta 36rekin hasi nintzen ni. Baina hasieran pilo bat kostatu zitzaidan, mendia oso gogorra baita, eta gorputza, muskuluak, artikulazioak, ... ohitu behar dira kirol berrira. Ez da gauza bera mendian ala kalean korrika egitea.

Eta trailez gain, zertan aritzen zarete eguneroko? Zaila al da zuen egunerokotasuna entrenamenduarekin uztartzea?

Liher: Ni ikaslea naiz, eta egia da denbora eskatzen duela, baina pozik uztartzen dut.

Julen: Ni irakaslea naiz Burtzeñako ikastetxe batean. Alaba bat daukat eta emazteak ere lan egiten du ordutegi berezi batekin, eta kostatzen da... Batzuetan ez dut gogo handirik lanetik nekatuta heltzen banaiz, baina gertatu izan zait neke hori mentala izatea, eta entrenamenduaren ostean askoz hobeto egotea. Eta kirol honetan, behintzat, edozein egunetan eta ordutan irten naiteke, eta horrek errazten du apurtxo bat.

Uztartzen al duzue traila beste kirolen batekin?

Liher: Futbolekin jokatzen nuen, baina utzi nuen.

Julen: Bai, nik euli arrantza txapelketetan parte hartzen dut duela 20 urtetik hona, eta horrek lehenetsia du trailarekiko. Orain munduko txapelketa prestatzen ari naizenez, mendira joaten naiz, baina mantentzeko entrenamenduak soilik egiten ditut; ez dut lehiatzen balizko lesioak ekiditeko. Munduko txapelketa batean hirugarren geratu ginen, Europako beste txapelketa

Kirolari erreferenteren bat aukeratu behar bazenute?

Liher: Manuel Merillas.

Julen: Killian Journet.

Egin nahiko zenukete eta igo gabeko gailur bat?

Liher: Urte batzuk barru, Mont Blanc.

Julen: Aneto adibidez.

Egin gabeko eta egin nahiko zenukete lasterketa?

Liher: Zegama - Aizkorri.

Julen: Berdin.

Zozketa egiten da izen-emate ugari guztien artean, eta ez zait inoiz tokatu.

Gehien gozatzen duzuen gure inguruko mendia?

Julen: Barakaldoko Arroletza eta Sasiburu mendilerroa.

Etiket ateratzen naiz zuzenean entrenatzera eta gure moduko kirolari gutxi egin dezake hori.

Liher: Julen esan bezala, inguruko mendiak oso aproposak dira entrenatzeko, baina nik nahiago dut Pagasarri eta Ganekogortako ingurua.

Zer aholku emango zenioke trailean hasi nahi duenarentzat?

Liher: Poliki-poliki hastea.

Julen: Bai, berdin. Eta ahal bada, kontrolatzen duen norbaitekin hastea.

pare batean bigarren postua lortu nuen... Eta Espainiako txapelduna ere izan naiz. Aurtun, gutxi barru, Frantziako Munduko Txapelketan parte hartuko dut.

15 urterekin hasi nintzen horretan. Ibairra joaten gara arrantzan, eta arrain guztiak, amurrairak batez ere, ibairra bueltatzen ditugu berriro.

Harrigarria! Eta zertan datza lehiaketak?

Julen: Ibaiko eremu konkretu batean, bi orduan ahalik eta arrain gehien arrantza-tzean datza. Arraina handiagoa bada, puntu gehiago eskuratzen dira.

Honek ere entrenamendua eskatzen du? Non egiten duzu?

Julen: Bai, jakina. Hemen, Kadaguan, Balmaseda aldean. Baina Gipuzkoan, Kantabrian, Asturiasen, Errioxan edo Palentzian ere egona naiz... Inguruan ditudan eremu guztietan, batez ere hemen leku gutxi dagoelako.

Bizkaiko txapeldunak izan ondoren, zein da zuen hurrengo erronka?

Liher: Euskadiko Kopa. Bizkaiko Txapelketaren antzekoa da, baina Euskadi mailan.

Julen: Ez dut helburu finkorik. Sasoi onean egotea, eta lasterketetan gozatzea baino ez.



**FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46

cafetxinbo****

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak

Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



**Lápices
LIBURVENDA**



Untziola kalea, 8
ZORROTZA



AGENDA

Ekainak 27, osteguna

EGUZKITAN BLAI

18:00. Auzokako kanpoaldean.

Kontzertua:

LOS TXIKOS DEL FONDO
+ **ZOROEN KLUBA**

Ekainak 28, ostirala

EGUZKITAN BLAI

18:00. Auzokako kanpoaldean.

Bakarrizketa + DJa:

ANGEL COLLADO
+ **REGGAE SKA DJak**
(Lardy Bat & Miss Waymon)

Uztailak 4, ostirala

EGUZKITAN BLAI

18:00. Auzokako kanpoaldean..

Kontzertua:

TARISKO (Afrobeat fusion band)
+ **KIKKS DJ-a (elektronikoa)**

Uztailak 18, osteguna

19:00. Gaztetxean.

Kontzertua:

RATOS DE PORÃO
+ **SASIKUMEAK REVENGE**

Sarrera: 15 / 18 €



Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko agendetan (aldizkarian eta webgunean) iragartzeko, zm@zorrotzmorrotz.eus helbidera idatzi.



Maitasun kapitala

Karmele Jaio.

Elkar. 2023. 240 orrialde.



Bere maitalea izandako Martinen hiletan dago Olga. Bertan gogoratzen du berarekin bizi izandako pasio sutua, gizonak duela urtebete utzi zuen arte. Oroitzapenetan murgilduta, Martinekiko bere mendekotasun emozionalaz ohartzen da, eta horrek agerian uzten dio, bere burua emakume aske eta ahaldunduztat bazuen ere, maitasunarekin beti izan duen kontraesana. Aldi berean, tesi bat zuzentzen dabil Olga irakaslea, emakumeei maitasuna euren bizitzako erdigunea izaten erakutsi zaien moduan sakontzen duena. Pertsonaiek bizitako esperientziak eta bateko nahiz besteko artistek piztutako gogoetak tarteatuz, nobela anbiziotsu bat osatu du Karmele Jaio, arin irakurtzen dena baina arrasto sakona uzten duena, nor bere buruari begira hausnarketara bultzatuz.



ERASO "Azken batean"

(Autoekoiztua) 2024



Zortzigarrena. Poztasuna baina era berean tristura ere bai, izan ere 25 urte baino gehiagoko bidea egin ondoren agur esango digu Zarauzko laukoteak. Azken ospakizun diskografikoa dugu honako hau, non nostalgia puntu batekin iraganari begirada bat

bota eta ibilbide guztian zehar egindakoaren irakurketa bat burutzen duten. Taldearen parte izan direnei omenaldi gisa ere hartu daiteke, "Oroitzapenak" kantaren bideoklipetan ikus daitekeen moduan.

Zenbait estilo jorratu ditu taldeak, baina azken urteetan rockaren koordinadetan mugitu direla esan dezakegu eta lan hau horren isla garbia da. Serge abeslariaren ahotsean ere aldaketa nabarmentzen da, kutsu rockeroago eta era berean intimistagoa. Bakarkako bidea ere hasi zuen duela urte batzuk eta nahi eta nahi ez eragina hor dago.

Nahiz eta azkenengo garaietan abesti solteak kaleratzeko joera ezarri den, laukotea sustraietara itzuli eta 12 abestiz osaturiko lana grabatu dute Zestoako Gaztain estudioetan, Ezpalak taldeko Eñaut Gaztañagaren gidaritzapean. Kolaborazio bakarra aurkituko dugu honakoan: Cobra eta Kokein taldeko Haritz Lete. Azalaren aldetik kolore garbi eta alaiak aukeratu dute, bukaerari zantzu gozoa emateko asmoz. Ez adiorik!



PINTXOTAN



ASKABIDE TABERNA



Frai Juan Kalea, 20.

Ordutegia:

Astelehenetan itxita

Asteartetik - ostegunera: 12:00 - 15:00 eta 18:00 - 22:00

Ostiral eta larunbatetan: 12:00 - 15:00 eta 18:00 - 24:00

Igandeetan: 12:00 - 15:00

Tomatea ahuntz-gaztarekin

Zailtasun maila: Erraza.

Prezioa: 1,30 euro.

Osagaiak: tomatea, Ahuntz-gazta, olio, gazta, arrautza, irina, tipula, azukrea eta ogia.

Lehenik eta behin, bi xerra tomate behar ditugu. Bien artean, ahuntz gazta zati bat sartu ondoren (sandwich bat izango balitz bezala), arrautza-irinetatik pasatu (pazientzia eduki behar dugu) eta frijitu. Geroko utzi.

Beste aldetik, tipula karamelatua prestatu behar dugu. Horretarako, tipula juliana eran moztu. Olio zartagin batean jarri, tipula sartu, eta gatz pixka bat bota ostean, su oso motelean zartaginari estalkia jarri. Ondoren, azukrea gehitu eta sua igotzen dugu su bizian tipula karamelizatzeko. Bueltaka arituko gara etengabe, eta pixkanaka urre-kolorea hartzen ikusiko dugu.

Bukatzeko, ogi zati bat hartu, lehenengo tomate/ahuntz-gazta egin dugun sandwicha gainean jarri, eta honen gainean tipula karamelizatua apaintzeko.

On egin!

ehbildu

ERABAKI*
ALDAKETA



ASKABIDE
kultur elkarte
zorrotza



Zamaia – Kongeda (616 m.)

*Lerro hauen gainean,
Zamaiaiko tontorrean dagoen buzoia.
Behean, Zamaia Zorrotzatik ikusita.*

MANU COBO

Kareharri zuriko haitz txiki bat da, Kongeda belartsuan amaitzen dana (659 m). Aipatu behar da kasu askotan Kongeda eta Zamaia terminoak erabili direla azken tontor hori izendatzeko sinonimo gisa.

Egia esan, Zamaiak 616 eta 579 metroko bi tontor izendatzen dauz, baita inguruan dauden meatze-ustiategiak ere. Horietatik orbain sakon bat geratzen da, denbora bera ere ezabatzeko gai izango ez dena.

Alonsotegi-Irauregitik (42 m) abiatuta, Kortatxutik eta El Somo auzotik (193 m) abiatuta, ekialde maldatik igoko gara. Aipatutako mehatzaren albotik igaro eta totnorrera helduko gara, Alonsotegi-Arbuio errepidetik ordu bete terdi emongo dogu igotzen, errepidetik hasikeran eta bidetik aterpera heldu baino apur bat beherago eskumaldera.

Auzotik trenes edo busez hurbildu ahalko gara, ostantsien oinez beste ordutxo bat izango dogu.



TXOKO FEMINISTA



Oraindik ere, ama izateak desabantailan jartzen ditu emakumeak gizarte mailan.

Izan ere, *Yo no Renuncio* elkarteak publikatutako "*Sin madres no hay futuro*" txostenak dio ama izan diren emakumeen % 87k uko egin diola bere lan-ibilbidearen alderdiren bati, dela soldata galduta, dela lan-aukerak baztertuta, dela enplegua aldatuta. Gainera, salatzen du Espainian zaintza-sistemarik ia ez dagoela, eta heziketa eta zainketaren pisua amei dagokiela, neurritz kanpo. Bikotekideak eta

aiton-amonak ere badira inplikaturako parte garrantzitsuak.

Europar populazio hazkuntza-krisialdia badago ere, emakume askok (10etik 6, txostenari jarraiki) seme-alaba gehiago izango lituzke haiek zaintzeko laguntza handiagoa izango balu, hala nola laguntza ekonomikoa, zaintzaileak edo konfiantzazko laguntza-zerbitzua.

Inbertsioa eta legedia behar dira herrialdeetako etorkizuna bermatuko duen zaintza-ekonomia garatzeko. Eta amarik gabe, eta seme-alabarik gabe, hori ez da posible.

IRATZE PÉREZ

SALAKETA ARGAZKIA

Eskudela ala eskua zikintzeko tresna?

Pertsonen segurtasuna ziurtatzearen ibiltariari eskua bermatzeko tresna da eskudela. A8 autobidearen gainetik Usandizaga eta Ikastalde kaleak lotzen dituen pasabidean, litekeena da, adibidez, adinekoren batek eskudela horretaz baliatu nahi izatea segurtasun handiagoz ibiltzeko. Baina inork ez du hori egiten, pasabidearen alde estalian zikinkeria pilatzen delako aspalditik. Zalantzarik gabe, instalazio horrek garbiketa behar du. Horrela eskatu du Auzo Elkarteak behin baino gehiagotan, baina orain arte arduradunek entzungor egin dute.



LASTER

Elektrizitatea
elektronika

- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ARGIZTAPENA
- SARE INFORMATIKOAK

TFNO./FAX: 94 442 46 35
LARRIALDIAK: 657 79 57 04

www.electricidadlaster.net

MENDIGAIN ETXALDEA
ZORROTZA 48013



ESKaintza PROGRESIBOETAN

ARMAZOIA +
KRISTALAK GOI-
GAMAKOAK

265€

Sustapena indarrean +- 4.00 esferako eta
-2.00 zilindroko arto graduazioetarako
RPS: 213/18

ibarreteraluxury
O P T I C A



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

Gerra

Mendebaldeko kulturaren muin-muinean dago gerra. Betidanik izan da gerrarik, borrokarik. Hortxe dago Homeroren *Iliada*, gerlariaren figura gizotasunaren eredutzat ezartzen duena. Antzinatea gatazkaz beteta dago, jakina denez, eta horietako bat jasotzen du liburuak; persiarren eta greziarren artekoa, hain zuzen. Literatura kanonaren oinarrian dago, beraz, gerra. Gaur egunetik hurbilago, ordea, XX. mendea da, ez bairrik gabe, gerraren mendea. Gerra modernoa, historialariek aipatu dutenez, I. Mundu Gerrako frantziar larreetan jaio zen. Somme eta Verdungo basatzen loratu zen egun dugun gerraren iruditeria, gatazka beliko batean sistematikoki lehenbizikoz erabili zen eraikuntza garrantzitsuarekin batera: lubakia.

Kurioski, gaurko egunean ez da hori *gerra* esan eta burura datorkigun lehen gertakaria historikoa, Bigarren aipatu ohi baita askoz gehiago. Ez dakit izango den Hollywood, amerikarren propaganda joria -lehenengoan parte hartze txikiagoa izan zuen-, edo Bigarrenak nazismoarekin izandako lotura, baina hura geratu da iruditeria kolektiboan iltzatuago, Lehenengoa izanda ere irudi



ASIER URKIZA

“... Beharbada

gerrarekin

fribolizatzeke joera

apalduko zaigu

zertxobait eta utziko

diogu ahoberokeriak

esateari. Edo,

larritasun handiagoz,

beste aldera

begiratzeari.

Gerraz pentsatzea

baita gerrari, hura

gertatzeari aurre

egiteko modurik

onena

horren oinarria. Akaso triskantzaren tamaina ere izan daiteke, izan ere, eta horrelakoetan konparazioak gorrotagarriak izan arren, Bigarrenaren suntsipenaren hedadura askoz handiagoa da. Kontua da egunotan liburu jakin bat iritsi zaidala eskuotara eta horrek eman dit gaiari buruz zer pentsa. Ernst Jüngerren *In Stahlgewittern -Altzairu erauntsia* euskaraz da berau. Jüngerrek mendebaldeko frontean soldadu gisa egindako

urteen narrazioa da, modu gordin eta zuzenean kontatua. Pentsarazi dit zenbaterainoko eragina izan zuen gerra hark, esaterako, literaturan. Artean oro har. Bigarrenak irudimena geldiarazi zuen, -garai batez bakarrik, gero etorriko zen Spielberg-, Lehenengoak, ordea, garaiko idazle eta artista askorengan utzi zuen marka, lan ugariaren pizgarri bihurtuz.

Europar Gerra danborren durundia entzuten hasi den honetan, uste dut gerraren ideiaz gogoetatzten hastea komeni zaigula. Ez da, jakina, egunerokoaren larritasunean erosoena. Nahikoa dugu Netflixen beste kapitulu bat jartzearekin, gerraren erauntsiak leihoak ez tandarazi arte. Gerrari buruz irakurri, *Saving Private Ryan* etik harago joan eta gerran murgildu. Halere ez dugu gerraren ideia zipitzik izango. Baina beharbada harekin fribolizatzeke joera apalduko zaigu zertxobait eta utziko diogu ahoberokeriak esateari. Edo, larritasun handiagoz, beste aldera begiratzeari. Gerraz pentsatzea baita gerrari, hura gertatzeari aurre egiteko modurik onena. Nahiz eta, ez dezagun ahaztu, betidanik egon den gerrarik, borrokarik. Apika ez betiko, iragan irudikatu baten nostalgiaz. Bide Ertzeanen kantu hartan bezala, “Gerrarik ez zen, gerra baino lehen”.

Euskal Erroten agonia motela

Tristea eta tamalgarria da Euskal Errota Handien eraikinak, Zorrotzako eta Bizkaia osoko ondare historikoaren elementu garrantzitsuenetako batek, eraiki eta 100 urtera duen hondatze-irudia ikustea, kolapsoaren ertzean.

1924an inauguratu zen eta bere jarduera industrialak bost urte bakarrik iraun zuen. Ordutik aurrera, gero eta narriadura handiagoa izan du, eta ez zuen ezertarako balio izan Eusko Jaurlaritzak 2009an “monumentu kategoriarekin sailkatutako kultura-ondasun” izendatzeak.

Zorrotzako Auzo Mugimenduak eta IOHLEEEK (Industria Ondarearen eta Herri Lanen Aldeko Euskal Elkarte) urteak daramatzate adierazten erakunde guztietan narriadura geldiezina dela eta premiaz esku hartzeko eskatzen. Hala ere, eraikinaren jabe den Almacenes Comerciales SL enpresak ez da bete eraikina behar bezala mantentzeko legezko betebeharra. Bestalde,



CARLOS RODRÍGUEZ



Bai Zorrotzako

Auzo Mugimenduak,

bai IOHLEEEK

(Industria Ondarearen

eta Herri Lanaren

Defentsarako Euskal

Elkartea) urteak

daramatzate instantzia

guztietan narriadura

geldiezina adierazten

eta lehenbailehen esku

hartzeko eskatzen.

Foru Aldundiak luze jo du gai honetan, nahiz eta mantentzearen erantzule subsidiarioa izan. Izan ere, Aldundiak eraikinaren mantentze-lanen proiektu bat aurkezteko eskatu zien jabeei 2021ean, baina ez dago proiektu hori aurkeztu izanaren berririk, eta ez da bete Aldundiak enpresa jabeari zigorra jarriko ziolako mehatxua.

Bestalde, 2022ko abenduan, erakunde

publikoek eraikina erostea edo desjabetzea eskatzen zuen EH Bilduren ekimen bat eztabaidatu zuen Eusko Legebiltzarrak. Ekimena ez zen onartu, eta asmo-adierazpen soil batek ordezkatu zuen. Aurrerago, 2023ko martxoan, Foru Aldundiak ere atzera bota zuen EH Bilduren beste ekimen bat, eraikina erostea edo desjabetzea eskatzen zuena.

2023ko martxoan bertan, Bilboko epaitegi batek izapideak egiteko onartu zuen herritar partikular batek eraikinaren jabearen aurka (ACSA sozietatea) jarritako salaketa, mantentze-faltaren ustezko ondare-delitu batengatik. Azken berria 2024ko urtarrilean atera da, Aldundiak iragarri baitu “aurten 1,2 milioi euro inbertituko dituela eraikinaren mantentze-lanetan”.

Egia esan, eraiki eta 100 urtera, eraikin horrek zutik dirau, hormigoiz egina izan zelako. Material oso gogorra delako. Hain zuzen ere jabeek eta mantentzeko ardura duten erakundeek duten aurpegia bezain gogorra.





Eliud

Bai. Zorrotzako biztanleriarekin bat egiten dut usain txarren eta toxikoen presentzia salatzeak. Errespetua merezi dugu!



Yerar

Zalantzarik gabe, hobeto kontrolatuta egon beharko litzateke botatzen duen hori. Gainera, lantegiak ez luke bertan egon behar inolaz ere.

IRATZE PÉREZ

Sader-Profersan izandako istripuak.

Bizilagunon osasunerako kaltegarriak dira enpresa hauen jardunak?



Bea

Usain hutsak ondoez orokorra eta eztarriko azkura eragiten ditu. Berdin zait lurruna besterik ez dela esaten badute, itotzen zaituen zerbait ezin baita ona izan



Bea

Betidanik. Usain kimiko eta toxikoa da, eta ezinezkoa da hori ona izatea. Epe luzera begira, horrek zer ondorio utziko dituen ikusi beharko da



Sagra

Egun horietan atera zen kea ez da batere normala. Oso lantegi zaharra da eta beste leku batean egon behar duela uste dut.



**ZORROTZA
HERRIGINTZAN**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 405 92 63
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



**iKasi
Mi Kasi!**

**0-18 urteko heziketa-ibilbide osoa,
ikastetxe publikoetan eta
Zorrotzatik irten gabe**



CEIP ZAZPI LANA-ZORROTZ GOTTI ILLU
Pinadia ebaldea, 6. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 48 75 • 📠 94 442 48 75
✉ sietecampas@gmail.com



CEIP ZORROTTA-FRAY JUAN ILLU
Ikastalde ebaldea, 12. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 442 00 21 • 📠 94 442 00 21
✉ 014159aa@hezkuntza.net




San Miguel auzunea, 10. 48013, Zorrotza. Bilbo
☎ 94 428 01 36
📠 94 428 01 37
✉ 015078aa@hezkuntza.net
www.ieszorrotzabhi.hezkuntza.net

Zorrotz Morrotzeko albisteak, erreportajeak, elkarrizketak...

orain sarean ere irakurgai

www.zorrotzmorrotz.eus 🔍

Sartu gure webgune berrira!




- Aldizkariaren eduki guztiak web formatuan
Elkarrizketak, erreportajeak albisteak, ...
- Agenda
Zorrotzako ekitaldi guztiak

• Hemeroteka
ZMeko ale guztiak PDF formatuan

Eta baita sare sozialetan ere:

✉ @zorrotzmorrotz 📘 @ZorrotzMorrotz 📷 @zorrotzmorrotz



ZORROTZ MORROTZ
Zorrotzako herri aldizkaria



euskaraz e// BARRA



Ikur honek euskara erabiltzeko
aukera bermatzen dizu



Bilbao